

JARDUERAK

- **KUADRILLATEGI:** bideo-lanak, dantza koreografiak, karaokeak, eskulanak, jolasak, Euskararen eguna...

Urritik maiatz amaierara. Astean 2 orduko saio 1. Prezioa: 40€/hiruhileko.
DBHko ikasleentzat soilik.

- **ANTZERKIA:** gorputz espresioa, mimika, ahotsa, inprobisazio jolasak, antzerki jolasak...

Urritik maiatz amaierara. Astean 2 orduko saio 1. Prezioa: 40€/hiruhileko.
LH 5. eta 6. mailak / DBHko ikasleak / Gazteak / Helduak

- **BIDEOGINTZA:** gidoia prestatu, grabatu, editatu, soinua erantsi...

Urritik maiatz amaierara. Astean 2 orduko saio 1. Prezioa: 40€/hiruhileko.
LH 5. eta 6. mailak / DBHko ikasleak / Gazteak / Helduak

- **BERTSOLARITZA:** nola eraikitzen da bertsoa, bertso doinuak, errimak, oinak...

Urritik maiatz amaierara. Astean 2 orduko saio 1. Prezioa: 40€/hiruhileko.
LH 5. eta 6. mailak / DBHko ikasleak / Gazteak / Helduak

- **SUKALDARITZA:** Lehenengo platerak, bigarrenak eta postreak. Garaian garaikoak. Ikasle pisuan sukaldatzeko, Gabon garaian ingurukoak txunditzeko edo, besterik gabe, eguneroko jakiak prestatzen ikasteko.

Urritik maiatz amaierara. Hamabostean behin, 2 orduko saio 1. Prezioa: 40€/hiruhileko.
LH 5. eta 6. mailak / DBHko ikasleak / Gazteak / Helduak

- **JENDAURREAN HITZ EGITEKO PRESTAKUNTZA:** modu konstruktiboan komunikatzeko teknikak eta, alderdi emozionala eta arrazionala parekatuz, autoestimua eta konfiantza areagotzeko.

Urritik abendura, 8 saio. Astean 3 orduko saio 1. Prezioa: 40€/hileko.
DBHko ikasleak / Gazteak / Helduak

- **IDAZKETA SORTZAILEA:** idatziz sortzeko 5 giltzak, pertsonaiak, espazioa, denbora, gaiak/abiapuntuak, egiturak, oroimena eta emozioa zentzuen bidetik.

Urritik abendura, 8 saio. Astean 2 orduko saio 1. Prezioa: 23€/hileko.
LH 5. eta 6. mailak / DBHko ikasleak / Gazteak / Helduak

- **IRAKURLE TALDEA:** euskaraz irakurritakoa taldean landu eta partekatzeko; sentipen, bizipen, esperientzia eta iritzi truke aberatsa izango da irakurle taldea.

Urritik maiatzera, hilean 2 orduko saio 1. Prezioa: 23€/hiruhileko.
LH 5. eta 6. mailak / DBHko ikasleak / Gazteak / Helduak

AISIALDI BERRIA

LHko 5. eta 6. mailakoentzat

DBHkoentzat

Gazteentzat

Helduentzat

2014-2015
urria-maiatza



ANTOLATZAILEAK:



J.J. MOGEL
GURASO
ELKARTEA



LAGUNTZAILEAK:



tokian tokikoa bultzatuz

MATRIKULA ORRIA IKASLE ZEIN GURASOENTZAT GAZTE ZEIN HELDUENTZAT

Taldeak adinaren arabera antolatuko dira eta, aurrera egiteko, ezinbestekoa izango da, gutxienez, 10 lagun ordu berean biltzea (*markatu X batez egin nahiko zenukeen jarduera; gero, jarduera berean izena eman duzuenokin bilerak egingo ditugu egunak eta ordutegiak adosteko*)

Deban baditugu aisialdia betetzeko urteetan finkatu izan diren jarduerak: kirola, pintura, musika, dantza,... Orain arte eskaini izan diren jarduera hauek herrian zegoen hutsuneak edo beharrak asetzera etorri dira. Egia da, ordea, eskaini diren heinean sortu izan dela eskaera ere.

Hori kontuan izanda, eta jakinik jarduera horietan guztietan herriko jende mordoia ibiltzen den arren badirela beste batzuk jarduera horietatik kanpo geratzen direnak, aisialdirako jarduera berriak proposatzera gatoz. Aisialdi gozagarri bat; euskara oinarri hartuta, emaitzari baino, prozesuan sortuko diren emozioei eta bizipenei begiratuko diena.

Baina neska-mutilei ez ezik, gazte eta helduei ere parte hartzeko aukera emango dien aisialdia eskaini nahi dugu; geure buruei ere esperientzia berriei gozatzeko aukera eman nahi diogulako. Eskaintza bikoitza da, beraz: gazteei begirakoa batetik eta guraso edo helduei begirakoa bestetik.

Zer da proposatzen duguna. Kultur jarduera desberdinak. Kulturak balore gizatiarrak sortzeko ahalmena du, orain eta hemen gertatutakoaz gozatu eta sentitzeko bide ematen du, autoezagutza bultzatzen eta giza komunikazioa errazten; beldurraren mugak apurtzen laguntzen du eta norberaren ideia eta ekintzen erantzule izaten; jakin-nahia, esperientzia-nahia,... pizten ditu.

Kuadrillategi, antzerkia, bideogintza, bertsolaritza, jendaurrean hitz egiteko prestakuntza, idazkuntza, irakurle taldea,... Horra aukera zabala, besterik gabe, gozatzeko.

Proponemos nuevas actividades culturales. Un tiempo libre divertido en el que, tomando como base el euskera, miraremos más a las emociones y las vivencias que surgirán durante el proceso que al resultado en sí mismo: teatro, vídeo, bersolarismo, formación para desenvolvernos ante el público, taller de escritura, grupo de lectoras/lectores... para gozar despreocupadamente.

JARDUERA	
Kuadrillategi	
Antzerkia	
Bideogintza	
Bertsolaritza	
Jendaurrean hitz egiteko prestakuntza	
Idazketa	
Irakurle taldea	
Sukaldaritza	

PREZIOA: Ikusi jarduera bakoitza

Garrantzitsua: behin saioekin hasita, ikasturte osoa kobratuko da!!!

IZENEMATEA-1

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Jaioteguna: _____ Posta elektronikoa: _____

Telefonoak: _____

K/K: _____

Kontu korrontearen titularra: _____

Titularraren sinadura: _____

IZENEMATEA-2

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Jaioteguna: _____ Posta elektronikoa: _____

Telefonoak: _____

K/K: _____

Kontu korrontearen titularra: _____

Titularraren sinadura: _____

**Izena emateko azken eguna: maiatzak 30
(entregatu ikastetxeko idazkaritzan, edo udaletxeko harrera bulegoan,
edo Ostolaza udal liburutegian)**